

Lesbianen, Gay-en Transexualen eta Bisexualen nazioarteko eguna dela eta Adierazpen Instituzionala:

Gaur lesbianen, gayen, Transexualen eta Bisexualen harrotasunaren eguna da, LGTB kolektiboarena alegia, "sexu askapenerako" eguna ere deitua dena. 1969ko ekainaren 27tik 28rako gauean, New Yorkeko Stonewall pubean, transexual, lesbiana eta gay talde bat matxinatu zenean, poliziek eginiko abusua salatuz eta haien eskubideak aldarrikatzeko. Poliziari aurre egin zioten, haren jazarpenari, iskei eta indarkeriari. Zenbait egunez, ezkutatuta eta ikaraz beterik bizi behar izaten zuten pertsona berberak kalera irten ziren, adieraztera ez zirela lotsatzen haien izaeraz, haien itxuraz ezta harremanez ere.

Ez dugu ahaztu behar historiak gogor zigortu duela sexu praktikan intsumitua izatea, heterosexualek arauetatik ateratzen zen guztia, baita sexu nortasunaren aldeko anbiguotasuna ere: pertsona *transak*, mari-mutilak edo marituak; harrotasunez esanda, hizkuntzaren jabe eginda.

Gauza jakina da Osasunerako Mundu Erakundeak ez zuela kendu homosexualitatea patologien zerrendatik 1990. arte, eta gaur egun transexualitatea buru gaixotasuntzat dutela, eta psikiatriako eskuliburuetan (DSM eta CIE) *genero disforia* deritzotela. Ez da ahaztu behar giza horrek munduan jasaten duen jazarpena; lesbianeiei "sendatzeko" bortxaketak egiten dizkiete, transexualak diskriminatu eta estigmatizatzen dituzte, batzuetan asasinatzeraino ere heltzen direla. x Giza eskubideak dira auzia; hau da, oinarrizko eskubideak dira kontua.

113 naziotan homosexualitatea legala da, 55ek lanean sexu joeragatik diskriminatzearen aurkako legeak dituzte, 10ek berdintasuneko ezkontza onartzen dute eta 12 naziotan sexu bereko bikoteak adoptatzea zilegi da. Ordea, nazioen % 40k oraindik sexu berekoen arteko harremanak kriminalizatzen dituzte, eta haietan zigorrak joan ohi dira azotaldietatik kartzelara, biziarteko kartzela aldira edo are heriotza zigorreraino ere.

Azken urteotan gayak ikusgarriago dira gizartean, ahalegin askoren ondorioz. Artistek, politikariek, idazleek, irakasleek —are militarren batek ere— homosexualak direla adierazi dute. Emakumeei, ordea, espazio publikoa eta sexualitatea ukatuago dizkiete, eta lesbianen gizaidea, are gaur egun ere, ez da hain ikusgarria.

Gainera, urte asko dira transexualen eta genero artekoen taldeak antolatuta daudela haien eskubide legal, sanitario eta sozialak defendatzeko. 2007ko Genero Nortasunaren Legea ezberdintasuna eta aniztasuna duinago egiteko lorpena da, kritika gogorretatik at ez babago ere. Hala, sexua eta generoa bereiztea lortu dute, eta identitatez aldatzeko kirurgia ezinbesteko baldintza ez izatea. Dena dela, ageri-agerikoa da pertsona transexualek eta transgeneroek sufrizten dutela gizarte diskriminazio eta bazterketa indizirik handiena, oraindik ere gabezia larriak jasaten dituztelako, bai administrazioen arretaren aldetik, bai gizarte begirunearen aldetik, indarkeria eta penalizazio handiagoa pairatzen baitute.

Hori dela kausa, Bildu talde politikoa honako erakunde adierazpen hau proposatzen du:

1. Geure egitea eta politika aldetik bultzatzea pertsona lesbiana, gay, transexuala eta transgeneroen eskubide eta askatasun publikoak defendatu beharra, sexu joera eta identitate askotarikoak normalizatzeko asmoz, lan hori egungo aurreiritzi eta estereotipoak gainditzeko jarrera zabal baten laguntzaz eginda.

2. Informazio eta sentsibilizazio kanpinen bidez sustatzea herritar kontzientzia solidario berri baten sorrera, haren bidez lortu ahal izateko nahiz pertsona lesbiana, gay, transexual eta transgeneroekiko jarrerak aldatzea eta aurreiritzi eta susmoak ezabatzea, hala pertsona talde horiek beren egunerokotasuna proiektatu ahal izateko gainerako herritarren berdintasun, askatasun eta begirune baldintza berberetan.
3. Prestakuntza programen edo bestelako tresna batzuen bidez beharrezko baliabideak ematea Donostiako ikastetxeei eta hezitzaileei, era horretan gizatalde horietako kide diren pertsonak ez baztertzea prebenitzeaz gain, bermatuko ere delako ikasleek haien nortasuna, afektibitatea, sexualitatea eta harremanak osotasunez garatu ahal izatea.
4. Agintari eskudunei helaraztea beharrezkoa dela eraginkor defendatzea pertsona transgeneroen, transexualen, lesbianen eta gayen eskubideak eta askatasunak; hala nola, sexua berresleitzeko prozesuak osasun sistema publikoan sartzea, lanean ez diskriminatzea eta halako kolektiboek bideratutako bestelako aldarrikapenak ere.
5. Zerbitzuetan aholkularitza juridikoa eskaintzea. Pertsona horien lan integrazioari laguntzea, lanpostuak aukera baldintza berdinetan lortzea eta baliabide ekonomiko, sozial eta sanitarioak eskuratzea bermatzearen bidez.
6. Agintari eskudunei adieraztea beharrezkoa dela bermatzea pertsona transexualek eta genero artekoek osasun sistema publikoa eskuratu ahal izatea, patologi ikuspeirik izan gabe.

Donostian, 2012ko ekainaren 28an

Sind.: Josu Ruiz
BILDU udal taldearen bozeramalea

